



Laneko Medikuntza eta Erizaintzaren oinarrizko ezagutzaren pertzepzioari buruzko inkesta

2024ko otsailaren 1ean eta 13an, medikuntzako lehen mailako 217 ikasleri mintegi bat eman zitzaien UPV/EHU-Osalan María Isabel Bilbao Bengoechea laneko medikuntza eta erizaintzako Katedra aurkezteko. Bestiak beste azaldu zitzaizkien laneko medikuntzako espezialitateari buruzko oinarrizko ezagutzak, espezialitatearen berezko jarduerak, barneko BAME mediko egoiliarren bidezko sarbidea eta lan-irteerak.

Aldez aurretik, inkesta banatu zitzaien, laneko medikuntzaren eta erizaintzaren espezialitateari buruzko pertzepzioak eta ezagutzak baloratzeko. Ikasleen banaketa honako hau izan zen:




Parte-hartzaile gehienek 18 urte dituzte, eta medikuntzako lehen mailako ikasleen ohiko adinarekin bat datoz.



217 ikasletik % 77 emakumeak izan ziren, % 22 gizonak eta % 1 ez-bitarra.


Inkestako galdera erabakigarrienak honako hauek izan ziren:

Entzun al duzu aurretik Laneko Medikuntza eta Erizaintza arloei buruz?



Parte-hartzaileen % 73k adierazi zuten ez zutela alde aurretik entzun arlo horiei buruz, eta % 27k baietz. Horrek erakusten du gehiengo esanguratsu batek ez duela medikuntzaren eta erizaintzaren eremu espezifiko hau ezagutzen edo ez duela entzun. Emaitza hori baliagarria izan daiteke laneko medikuntzaren eta erizaintzaren gaineko kontzientzia eta hezkuntza areagotzeko beharra identifikatzeko, gehienek ez baitute arloa ezagutzen.

Laneko medikuntzari eta erizaintzari buruz gehiago ikasi nahi duzu zure prestakuntza akademiko edo profesionalean?



Parte-hartzaileen ia erdiak ez daude ziur gaiari buruz gehiago ikasi nahi dutenik (% 46), 42k badute interesa eta zati txiki batek ez du interesik (% 12). Horrek aukera eman lezake hezitzaileek eta medikuntza-programek ekimen gehiago gara ditzaten, laneko medikuntzak eta erizaintzak beren curriculumean duten garrantziari buruzko interesa eta kontzientzia areagotzeko.

Laburbilduz:

Nabarmendu behar dugu medikuntzako lehen mailako ikasleek laneko medikuntzaren eta erizaintzaren arloetan ezagutza handiagoa behar dutela. Nahiz eta ikasle-kopuru handi batek ez zuen alde aurretik arloa ezagutzen, gehienek gehiago ikasteko interesa erakutsi zuten. Ematen du emandako mintegiak positiboki baloratu dituztela bai ikasleek bai irakasleek, eta horrek iradokitzen du jarduera horiek onuragarriak direla eta medikuntzako prestakuntzaren parte izaten jarraitu beharko luketela. Parte-hartzeak eta ebaluazio positiboek adierazten dute laneko arriskuen prebentzioak garrantzi handia duela haien prestakuntzan eta etorkizuneko praktika profesionalean.